

60 NEURRI HIRIA ALDATZEKO

Hiri soziala, elkartasunezkoa.

1. Iruñeko 15. auzoa. Hirugarren munduko hiri edo eskualde bat udalaren aurrekontuan sartzea hiriko auzoa balitz bezala.
2. Gastu publikoa gardentasunez eta zuhertasunez erabiltzeko konpromisoa, hala gastu arranditsu eta protokolozko gastuetan nola zinegotzi kargudunen soldatetan.
3. Gizarte Zerbitzuen Udal Behatokia eratzea, zer gizarte politika egin orientatzeko; gizarte politikak aldatetara egokitze aldera, bai eta aldaketei aurrea hartzeko ere.
4. Etxez etxeko Arreta Zerbitzua sendotzea; zerbitzu-ordu gehiago jartzea, baliabide osagarriak ezartzea eta Udalak zerbitzuaren zuzeneko kudeaketa pixkana berriro bere gain hartzea.
5. Immigrazioari buruzko Udal Plana bultzatzea, bizikidetzaz ahalbidetzeko, gizarte eskubideak sustatzeko eta, inor baztertu gabe, herritar guztien parte-hartzea bultzatzeko.
6. Iruñeko auzo guztietan ludotekak, hiri-kanpamenduak eta udako zentroak ezartzea, haurrentzako eta nerabeentzako.
7. Iruñeko auzo bakoitzean Gizarte Ekimenerako Auzo-Etxea jartzea, tokian tokiko Auzo Unitatea kokatzeko eta auzoko taldeek tokia izateko.
8. Apartamentu tutelatuak eta etxebizitza komunitarioak Iruñeko auzo guztietan.
9. Etxegabeentzako eta Bazterketa Larrian daudenentzako Arreta Plana egitea.

Iruñea, kultur eragilea

10. Egungo autobus geltokiaren orubea, bere osoan, kultur dotaziorako baliatzeko konpromisoa, bertan Artegunea kokatzeko (Arte Sortu eta Zabaltzeko Zentroa).
11. Hiria interpretatzeko zentroa, espetxeak egun hartzen duen orubean.
12. Agur Zibilak emateko areto handia sortzea.
13. Nazioarteko Lehiaketa deitzea, Arte Garaikideko Zentroaren Proiekturako; proiektua jendaurrean paratzea, eta erreferenduma egitea, hura Erorien Monumentua kokatua dagoen orubean jartzeko.
14. Alde Zaharrerako haur eskola Casa Luna-n jartzea eta Etxeak Zaharberritzeko Bulegoa Chinchilla jeneralaren eraikinera eramatea.

15. Udalaren musika eta dantza eskola Salesetan eta Teresianetan paratzea; bi eraikinak aireko pasabide baten bidez lotzea.
16. Civivox-Auzoenea. Gizarte eta kultur zentro bana auzo bakoitzean. Tokian tokiko taldeen gizarte eta kultur jarduerak biltzeko zentro irekiak eta prestatuak, gazte arloa barne.
17. Kultura parte-hartzaile eta oinarrizkoarentzako sostengua eta bultzada. Auzoetarako eta arte-taldeentzako dirulaguntzak libratzea.
18. Kultur Eraikineko etxartea estaltzea, ekitaldiak egiteko: kontzertuak, artisautza-azokak, biltzarrak...

Iruñea osasuntsua, habitagarria eta aurrerazalea

19. **Iruñea-Osasuna XXI. Fundazioa eratzea**, Diabetea aztertzeko Erreferentzia Zentroa ezartzea, eta osasun eta medikuntza Cluster-a sortzea.
20. Alokairuko etxebizitza publikoa udalaren orubeetan eraikitzea, eta alokairuak neurrizko prezioetan Iruñeko auzo berri guztietan; emantzipatu nahi duten gazteentzako lehentasuna.
21. Etxebizitza zaharra kudeatzea, zaharberritzea eta neurrizko prezioetan alokatzea, Alokairuen Bitartekaritzarako Udal Bulegoaren bidez.
22. Hutsik dauden etxebizitzak ERROLDA onetsi eta gauzatzea, etxebizitza horiek alokatzeko.
23. Auzoetan erabili gabe dauden dotazio publikoei erabilera publikoa ematea; Haur Eskolak, Auzoenea (Civivox izandakoak),...
24. Hiriaren erdialdeko dotazio-eraikinak ez desagertzeko politika (zinetokiak, ikastetxeak, dendak, ...)
25. Nafarroako Gobernuarekin hitzarmena egitea, Iruñea/Iruñerria irisgarritasun plana abiarazteko.
26. Iruñea kanpoaldean, disuasiorako aparkalekuak egitea, eta aparkalekuak erdialdearekin azkar lotzeko mikrobusak paratzea.
27. Bus-bideen sarea osatzea eta bidegurutzeetan lehentasuna ematea, garraio publikoa arintzeko.
28. Bidegorrien oinarrizko sarea urbanizatzea, parkeak, institutuak, merkatuak eta beste lotzeko; betiere, Iruñerriko herriekin koordinazioan.
29. Kalitatezko garraio publikoa antolatzea, industrialdeak kontuan harturik.
30. Eskualdeko tranbia. Tranbiari buruzko bideragarritasun proiektua abiaraztea, Iruñerriko ipar-hego lotura proiektatzeko (Uharte – Iruñea – Etxabakoitz)
31. Gipuzkoako Etorbide berria urbanizatzea.

Hiri euskalduna eta parte-hartzailea

32. Euskararen ordenantza berria egitea, “adostasunaren ordenantza” esan zitzaien zerion espiritua aintzat hartuta.

33. Hiriaren egoera soziolinguistikoa oinarri hartuko duen Estrategia-Plana egitea; Udalak eskura izan eta lortu beharko dituen bitartekoak, neurriak eta helburuak planifikatzea, eta herritarrentzako arreta aurrez aukeratutako hizkuntzan bermatzea, edo elebitan oro har, hala nola bi hizkuntzak iraunkorki erabiltzea izaera publikoa duen udal komunikazio orotan.
34. Gizarte eskariak eta beharrak asetzea euskarazko haur eskolei dagokienez.
35. Hizkuntza-paisaia elebiduna lortzea toponimian, karriketan, seinaleetan..., bizilagunei eta bisitariei hiriaren hizkuntza-errealitatearen berri emateko.
36. Euskararen Udal Kontseilua eratzea; hartan kide izanen dira euskararentzako lan erabakigarria egiten duten erakunde eta taldeak.
37. Erreferendumean erabakitzeko herritar eskubidea, hiria eta auzoak ukitzen dituzten kontu garrantzitsu eta eztabaidagarri orotan zuzenean parte hartzeko. Emaitza loteslea izanen da, erreferendumean parte-hartzea % 30etik gorakoa baldin bada.
38. Herritarrek aurrekontuetan parte hartzeko prozesua abian jartzea, herritarrek berek udalaren baliabideen zati bat zertara bideratu erabakitzeko aukera izan dezaten.
39. Auzoetako Kontseiluak eratzea, herritarren parte-hartze deszentralizatu bultzatzeko; herritarrengandik hurbil dauden topalekuak izanen dira, kudeaketa delegaturako gaitasuna eta guzti.
40. Iruñea Foroa. Internet bidezko udal sarea eratzea, herritarrek parte-hartzeko, udal blogak barne; herritarrei maiz kontsultak egiteko lanabes eraginkorra eta bizia.
41. Hiriko Gizarte Kontseilua; auzo, gizarte, ekonomia eta profesionalen arloetako erakunde adierazgarrienez osatuta; haren eginkizuna izanen da behar diren txostenak egitea hiriko proiektu handi, udal plan eta abarren aurrean.
42. Leihatila Digital Bakarra 2008an Udalarekin egin beharreko izapideetarako.

Emakumeon hiria, jende guztiari irekia

43. Emakumeen Zinegotzigoa eratzea Berdintasun Plan berria garatzeko.
44. Iruñeko Gazteriaren Kontseilua sortzea, hartan parte hartu nahi duten gazte elkarte guztiek osatua, eta parte hartzeko bideak eskaintzea inongo elkartean ez daudenentzat.
45. Gazteentzako Gaztelekuen sarea auzo guztietan sortzea, Auzoguneak eta udalak dituen beste leku batzuk baliatuta. Horiek guztiak, hiri erdiko GAZTELEKU batetik koordinatuta eta Iruñeko Gazteria Kontseiluak kudeatuta; kultur, arte, aisia, elkarte eta beste arlo batzuetako jarduerak egiteko.
46. Wifi-eremua eta banda zabala izanen duten telezentroen eta udal esparruen sarea sortzea, internet-sarrera bermatzeko.
47. Gazteak Emantzipatzeko Bulegoa sortzea; orientazioa eskainiko du gazteak lanera eta autoenplegura bideratzeko, haien prestakuntza handitzeko, etxebizitza-tipologietan sartzeko, betiere alokairuaren sustapenari lehentasuna emanez.
48. Merkataritzari buruzko zinegotzigoa eratzea, hiri osoa kontuan hartuko duen Merkataritzaren Osoko Plana abiarazteko.
49. Batzarra egiteko proposamena, eskualdekatzearen norainokoa, edukia eta definizioa zehazteko; Toki Entitateak eta Iruñerriko indar politikoak izanen dira batzarkide.

50. Udaltzaingoari buruzko Plan Zuzentzailea egitea, polizia-ekintza herritarren zerbitzuan jartzeko; ez herritarren kontra.
51. Babes Zibilerako Osoko Plana ezartzea eta hura behar diren giza baliabideez hornitzea.

Naturaren hiria, atsegina

52. Milutze aldean, kirol eta igerilekuen instalazioak bultzatzea, hiri osorako aisia leku izateko.
53. Alde Zaharrerako eta II. Zabalgunerako kiroldegia hiriaren erdialdean.
54. Santa Luzia, Irigarai mendia, Donapea eta Ezkabamendi baso berritzea.
55. Arantzadiko Planari ekitea. Baratzen artisautza-erabilera, Lorategi Botanikoa
56. Usain gozoen Parkea bururaino eramatea, Iruñea aldean, Mogotes ondoan.
57. Antoniutti aldeko militarren egungo instalazioak berreskuratzea, Takonera Parkean sartzeko.

... eta, hortaz gain, memoria duen hiria

58. Memoria Historikoaren Nazioarteko Parkea Ezkabamendin, eskualde mailan garatzeko proposamen gisa.
59. Ikur eta erreferentzia frankista guztiak eraikin publikoetatik eta kale-izenetatik kentzea.
60. Germanen hilarria 2007ko uztailaren 8an birjartzea.